



EBAZPENA, 2024KO OTSAILAREN 16KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, HEZKUNTZAKO IKUSKARI LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETETZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDA EGUNERATZEN DUENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera (2016ko uztailaren 4ko EHAA), ikuskari-lanpostuak aldi baterako beteko dira Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan aldi baterako beharrak betetzeko hautagaien zerrendan daudenen artean.

Zerrenda honako kolektibo hauek osatzen dute, lehentasun-ordenaren arabera zerrendatuta:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoan sartzeko hautaketa-prozesu bateko **oposizio-fasea gainditu duten izangaiak** eta Hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako plazarik lortu ez dutenak. Hautagaien zerrenda hainbat hautaketa-prozesutatik datozen pertsonak osatzen dutenean, zerrendan antzinate handiena izatearen irizpidearen arabera antolatuko dira.

b) **Ikuskaritzako lanpostuetan aritu direnak eta lanpostu horiek utzi dituztenak**, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan emandako zerbitzu-denbora handienetik laburrenera ordenatuko dira. Berdinketa gertatuz gero, berdinketa hausteko lehenengo irizpidea karrerako irakasle funtzionario gisa emandako denbora izango da, eta berdinketarekin jarraituz gero, irakasle gisa emandako denbora osoa. Ikuskapen-eginkizuna betetzean aurkako ebaluazioa jaso duena hautagaien zerrendatik kanpo geratuko da.

c) **Hezkuntza Ikuskaritzan plaza libreak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko egindako deialdiren batera aurkeztu diren hautagaiak, deialdian ezarritako gutxieneko baldintzak gainditu dituztenak eta lanposturik lortu ez dutenak**, lanpostuak betetzeko deialdian lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta. Azken kasu horretan, puntuazioaren guztizkoan bi hautagaien edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, baremoko atal bakoitzean puntuaziorik altuena lortuz ebatziko da, hurrenez hurren, baremoan agertzen diren hurrenkeraren arabera. Berdinketak jarraitzen badu, azpiataletan lortutako puntuazioa hartuko da kontuan, baremoan agertzen diren ordenaren arabera.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluen 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT

Bakarra.- Ebazpen honen datatik aurrera sortzen diren Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan aldi baterako beharrak betetzeko hautagaien zerrenda eguneratzea onartzea, hautagaiak adierazitako lurralde-lehentasuna eta jatorrizko kolektiboa adierazita, 98/2016 Dekretuaren 25.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.



Horrela, zerrenda eguneratu da:

NAN	LURRALDE-LEHENTASUNA	KOLEKTIBOA, 98/2016 DEKRETUAREN 25.2 ART.-REN ARABERA
30688194F	1. BIZKAIA 2. GIPUZKOA, Eibarreko egoitza	C)

HELEGITEAK

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 16a

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA